

## Eztabaida

# Euskal? Zinemaren? Garapena?

Lan gaitza jarri zidaten joan den uztailaren 2an Heletan Euskal Herria Zuzenean festibaleko lagunek. Kulturaren inguruko jardunaldien baitan, Antton Lukuren ondotik, “euskal zinemagintzaren garapena” bota zidaten puntua niri, eta horretaz berba egin nezan eskatu.

Ipuin kontalari edo apaiz paperean ikusi nuen bat-batean nire burua, esistitzen ez den zerbaitez mintzatu beharrez. Izan ere, ezin garapenik izan hasierarik ez duenak.

“Euskal Zinemagintza” ez baita esistitu ere egiten.

JOSU MARTINEZ

PROBOKAZIOA bilatu nahian nabilela usteko du irakurleak. Eta ez. Argi eta garbi errepikatu beharra dago, ez gaur egun ez eta historia-ri begiratuta ere, Euskal Zinema ez dela esistitzen eta ez dela inoiz esistitu. Kasik enpirikoki frogatu litekeen errealitatea da. “Zinema espainola”, “zinema yan-

kia” edo “zinema frantsesa”, edonork aintzat hartu eta aitortzen ditu korpus berezi eta identifikagarri gisa, baina Euskal Zinema definitzerako orduan, kontzeptu metafisiko guztiekin gertatzen den bezala, ez dago ados jartzerik.

Nire ustez, bi arrazoi nagusik eragin dute inesistentzia hori. Batetik, Euskal Zinemagileak ez direla gai izan esistitu dadin –eta hemen, sorkuntza kontuez gain, Zinemaren industria izaera aipatu behar da– eta bestetik, Euskal Zinemarik ezin omen dela esistitu, Euskal Herria bera ere ez delako esistitzen. Mapetan agertuko bagina, inork ez gintuzke auzitan jarriko. Baina kartografoek geografia kulturalaren atlasetik ere ezabatu gintuzten.

Lau multzo nagusitan sailkatu nituzke nik, Aturritik Ebrorako eremuan mustutako filmak. Lehenik, euskarazko filmak leudeke,

gutxien espero duzunean agertzen diren loretxo hauskor eta maitagarriak. Ondoren, euskaraz ez izanik ere bertoko



begirada batekin osatutako obrak. Hirugarrenik, atzerritarrek Euskal Herrian edo Euskal Herriari buruz egindako filmak sailkatuko nituzke. Eta azkenik, *Film Kolonialak* dei genitzakeenak; hau da, Euskal Herria kolonia kultural gisa ulertzen dituzten pelikula baskoak.

Aitortzen dut, beraz, *Euskal Herrian* zinema egin izan dela. Aitortzen ere *euskal filmak* –definizio ezberdinen arabera *euskal filmetzat* aitortuak– egin izan direla.... Baina edonola ere, euskal filmak egonik ere, Euskal *Zinemarik*, hau da Euskal *Zinemagintzarik*, hau da Euskal *Zinematografiarik* ez dago eta ez da egon.

Hurrengo galdera, bistan denez, nahiko argia da. “Euskal Zinemarik ez dago orduan. Baina... Posible ote da egotea?”. Erantzunak, nire ustez, kategorikoa da: “Bai, Euskal Zinema esistitzea posible da. Eta posible izateaz gain, beharrezkoa”.

Posible da, lehenik, Euskal Herria mapetan agertu ez arren, egiaz, esistitu egiten delako. Geuk, euskaldunok, egunero sortzen dugulako hala imaginatzean, Joseba Sarrionandiak berriki ondo gogoratu digun gisan. Eta posible da, bigarrenik, beste arteek horrela erakusten digutelako: “euskal literatura” edo eta “euskal musika” esistitzen baldin badira, zergatik ez da bada izango “euskal zinemarik”?

Baina posible izateaz gain, beharrezkoa ere badela nioen. Izan ere, Euskal Herriak bizirauteko borrokan duen gaitzik arriskutsuena bat alzheimerra da eta horri aurre egiteko moduen artean, zinema memoria kolektiboaren adierazpide oso baliagarria da. Patricio Guzman dokumentalgile txiletarrak ezin hobeki azaldu zuen aspaldi: “Zinemarik gabeko herria, argazki albumik gabeko familia bezalakoa da”. Horrez gain, herri batek bere burua pantailan ikusten duenean –ez ahaztu filmak normalki taldean ikusten direla, isilik eta iluntasunean–, herria “sortzen” ari da; zeluloideak “ispilu efektua” eragiten duenean ikusleengan, *de facto*, herri bat dago hor; bere esperientzia, emozio eta kode konpartituekin.

Ingurura begiratzea aski da ohartzeko, bizirauteko borrokan munduan zehar dauden hainbat herrirentzat zeinen baliagarria izan



Antton Ezeiza 1989ko argazki batean, *Ke arteko egunak* estreinatu baino lehen. Egileak artikulu honetan aipatzen dituen zenbait ideia eta kezka planteatzen aitzindaria izan zen, bai teoriarik, bai praktikan.

**Euskal Herrian zinema egin izan da. Euskal filmak –definizio ezberdinen arabera euskal filmetzat aitortuak– egin izan dira.... Baina Euskal Zinemarik, hau da Euskal Zinemagintzarik, hau da Euskal Zinematografiarik ez dago eta ez da egon**

den zinema. Irlandan edo Algerian, adibidez. Edo Eskozian; non, duela gutxi irakurri nuen, hamarkada batean independentismoa hirukoiztearen arrazoietakoa bat, (Estatu Batuetan egindako) *Braveheart* film abertzaletaren oihartzun izugarria izan omen den. Historiari begiratu, ikusiko dugu Euskal Herrian ere saiakera zenbait egon direla. Antton Ezeizaren kasuan, gainera, praktika teoriarekin uztartuz; nik hemen aipatutako hainbat ideia eta kezka planteatzen aitzindaria izan baitzen. Alta, bai Ezeizarenak bai beste saiakera guztiek loriatsuki frakasatu zuten, begiz begi hausten den katea bezala.

Baina etor gaitezen gaurko egunera berriro. Euskal Zinema posible eta beharrezko zela esan dut lehen. Bada, gaur egun inoiz baino aukera hobek ematen dira horretarako, bai teknikoki, bai humanoki. Azken urte hauetan euskal film zenbait burutu dira, batzuetan kalitate handiarekin gainera. Baina orain, lore bakartietatik, baratzera pasa behar dugu. Euskal filmak egitetik, Euskal Zinemagintza osatzera.

Euskal Herri esistente bati dagokion Euskal Zinema esistentea eraikitzeke langintza kolektibo horretan, bakoitzak bere ideiak ekarri beharko ditu. Nik, apaltasunez, iradokizun txiki batzuk egin nahi nituzke. Berandu baino lehen eman behar lirartekeen urratsak; haien urgentziak oharturik, artistek, herri

mugimenduek eta instituzioek elkarrekin bulztatu beharrekoak.

Lehena, zirkuitu komertzialetatik kanpo euskal filmak proiektatzeko sare nazional bat osatzeko beharra da. Zazpi probintziak barne hartuz, udalek babestu eta herri taldeek kudeatuko duten armiarma sarea. Horixe litzateke, dudarik gabe, biziraupenerako bermerik handiena; gure arnas aparatua.

Bigarren, ugalketa aparatua: umetokia. Kubako EICTV-aren ereduari jarraituz, gazteak formatzeko Zinema Eskola nazional potente bat sortzea, baliabide handiekin eta lehen mailako irakasleak gonbidatuz. Hauek atzerritarrak izanik ere, baitezpadakoa litzateke eskolako hizkuntza euskara izatea —azken finean, berdin da alemanez emaniko lezio bat euskarara edo gaztelaniara/frantsesera itzultzea—. Urtero hamabost gazteri beka eman eta hila-beteko iraupena luketen hiru ikastaro antolatzearekin has liteke. Eskola Ipar Euskal Herrian kokatuz, adibidez. Izan ere, beste klabeetako bat, gorputza belarrietatik oinetara eta Aturritik Ebroa luzatzen dela ez ahaztea baita.

**Euskal Herriak bizirauteko  
borrokan duen gaitzik  
arriskutsuenetako bat  
alzheimerra da eta horri aurre  
egiteko moduen artean, zinema  
memoria kolektiboaren  
adierazpide oso baliagarria da**

Eta hirugarren proposamena: begi eta belarri, bihotz eta buru izango den Euskal Zinemaren Festibala. Euskarazkoa osoki, baina azpitu-tuluen bidez mundu osoari irekia. Euskaldunontzat, aldi berean, topagune eta eztabaida-plaza izango dena. Aurrekoen lan ahaztuak ezagutu eta berriak kaleratzeko lekua. Ez du zertan hamar eguneko iraupena izan behar; hasteko, “Euskal Zinemaren asteburua” izan liteke bakarrik. Orain arteko harribitxi ezezagunak deskubritu, eta gaur eguneko film labur eta luzeak gozatzen, badugu edizio batzuetarako lana.

Bukatzer a noa. Diotenez, 2016an Donostia Europako Kultur hiriburu izatean mundua geurera etorriko da urte batez. Aukera paregabea izan daiteke geu ere mundura jalgitzeko. Jarri gaitezen lanean, beraz, eta agian, 2016rako esistituko da Euskal Zinema; Euskal Literatura, Euskal Antzerkia edo Euskal Musika bezala. Orduan, munduak, Zurriolako hondartzan eserita, ezker eskuin begiratuko du, Aturritik Ebroa, eta ez du zalantzarik egingo Euskal Herria esistitzen dela. ■



**EGIZU HARPIDETZA  
EGIOZU HARPIDETZA**

Hego Euskal Herrian 138 € / Ipar Euskal Herrian 168 €

Izen-abizenak

Helbidea

Posta kodea Hertia

Herrialdea

N.A./I.F.K.

Telefonoa

e-posta

Kontu zenbakia (20 digitu)

Ikasle bazara (unibertsitate / euskaltegi) edo Gazte Txartela baduzu %25eko deskontua harpidetzan.

943 37 15 45 · harpidetza@argia.com

Jaso lekuan  
kobratu  
SEILORIK EZ

**argia**

1-FD POSTA KUTXA  
20160 LASARTE-ORIA  
(GIPUZKOA)

TOLESTU

TOLESTU

TOLESTU

ERANTZUN KOMERTZIALA  
Batmen zkia: 17352  
(B.O.C. 22/99-06-02koa)